

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 236. zkia. 2015eko uztaila

**Santixauetatik
Andramarixetara,
FESTAN SALTOKA!**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapuetetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAUD, PADI...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.**HELBIDEA:**Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org**ERREDAKZIO TALDEA:**Alazne Aiestaran,
Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Leire Elustondo,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.**KOORDINAZIO****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Valentin Mugarza

LAGUNTZAILEAK:Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Pello Mugarza,
Valentin Mugarza,
eta Alicia Lorenzo.**ARGAZKIAK:**Igone Amesti,
Ibaia Azagirre,
Cerebral Effusion,
Issuna,
PAM,
txirindulari.net,Dorleta Vidal,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
eta Ekhi Velar.**PUBLIZITATEA:**943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.**TIRADA:**

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik

AZERIA zorro *Vulpes vulpes*

Usaimen, entzumen eta ikusmen finekoa, bakartia, gautxoria ... baina batez ere argia. Baso hutsean bizimodua ateratzeko beharko izan! Azeri-zuloa, hatxetako leizeren bat bizileku bihurtuta, bizilaguna topatu behar; txakurraren taxura egiten ditu uluak, umeske eta bero dagonean endemas. Ez du erasorik egiten preso edo estualdi baten larri hartu ezik eta harrapatzea denean gero, zepo batzuk erabiltzen dira tranpa legez, nekez jausten den arren; gure basoetan baina nabarmen urritu da. Lehen Oiztik artaldeak etxaldera bajatzen zirenean, bera ere ondorik etortzen zen, jatekoaren usainera. Bildotsa badago, ez du ardirik jango; txoria, satorra, txitatxoa, untxia... bata izan bestea izan, edozein du baleko sabela bapo-bapo betetzeko.



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK...4

Pamela Janice (AEB)

ELKARRIZKETA5-7

Cerebral Effusion

MALLABIAN ZER?8-9

Testamentua egitera goazenean

BOTEPRONTOAN10

Manuel Bautis

SANTIXAUAK11-14

Egitarava

ERMUAN ZER?15

Aitor Gonzalez, txirindularia

ERREPORTAJEA16-17

Musika doinua ez da eteten

IRITZIA18

"Bai Chef!"

SALEROSKETAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA21

Santixauak herrian edo kanpoan?

AGENDA22

Andra Mari Jaixek

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOHEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaDEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Pamela Janice

Miamin pilotan zebilen Jesus Mari Elgea ezagutu eta bere bizitza Ermuarekin lotu zuen betirako Pamela Janicek. Urteko lehen sei hilabeteak Amerikako Estatu Batuetan (AEB) igaro ostean, hurrengo seiak Ermuan pasako ditu. Orain, gainera, bere semeak (Jesus Mari eta Gorka) ere etorriko dira ilobekin. Kanean ia denek agurtzen dute, herrian maitatua den seinale.

- Urte erdia AEBn eta beste erdia Ermuan igarotzen duzu. Zergatik?

Niri gehiago gustatzen zait hemen egoitea, baina nahiz eta hemen jaio ziren, semeak han bizi dira.

-Noiz ezagutu zenuen senarra?

1972an. Bera Miamin zegoen pilotan jokatzen eta ni eskolan nengoen han. Egun batean hondartzan nengoela, bera alboan jarri eta berba egiteko eragatik ikusi nuen estatubatuarra ez zela (barreak).

-Berak bazekien ingelesez egiten?

Gutxi, baina bere irribarrea nahikoa zen.

-Denbora luzerako zegoen bera han?

Bera West Palm Beachen zegoen eta bi urte ibili ginen gora eta behera, elkar gehiago ezagutzen. Orduan, berak esan zidan: "etxera bueltatu behar naiz bi hilabeterako, nirekin etortzea nahi duzu?". Nik baietz esan nion! Ermuko eliza parean dagoen etxean bere izeba bizi zen eta han geratu ginen.



-Zenbat denboraz geratu zinen hemen?

Etorri nintzen lehen aldian bi aste egin nituen hemen. Gero New Yorkera bueltatu eta, bi urte geroago, urte eta erdirako etorri nintzen berriro. Ezkondu egin ginen, Izelaieta kalera bizitzera joan eta, azkenean, Zubiaurre kalean etxea erosi genuen.

-Zer iruditu zitzaizun Ermua ikusi zenuen lehen aldian?

Ohituta nengoenarekin alde handia zeukan. Hemengo jendea bezalakorik ez dago munduan. Jendeak maite egiten zaitu hemen, beste kontu bat da! AEBekin alderatuta oso ezberdina da. Hemen jende guztia ezagutzen duzu eta etxetik Santixauetan zarata asko entzuten badugu ere, oso ondo pasatzen dugu (barreak). Han, ordea, jendea oso itxia da.

-Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna, jendeaz gain?

Janaria, paisaiak... dena! Egunero birritan noa mendira pasioan egitera, 7etan bakarrik eta 9etan lagunekin. Zoragarria da!

-Badago gustatzen ez zaizun zerbait?

Jaietako zarata, iskanbila guztia dagoen tokian daukadalako etxea. Baina egun batzuk bakarrik izaten dira.

-AEBtako ohituraren bat zurekin edonora daramazu?

Aurten elkarte gastronomikoan 'Es-ker emate eguna' ospatuko dugu eta indioilarra prestatuko dut. Beti egin izan ditudan jakiak prestatzea gustuko dut bestela ere, baina hemengo janaria zoragarria da!

-Zer moduz moldatzen zara euskarekin?

(Euskaraz hasten da) Pixka bat, badakizu? Zaila da.

Ekhi Velar

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ


AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Cerebral Effusion, musika taldea:

“Beste edozeren gainerik gure buruarentzat egiten dugu musika”

Amerikako Estatu Batuetan (AEB) izan dira Cerebral Effusion taldeko kideak eta berriz bueltatzeko irrikan daude. Zergatik? Arrakasta handia izan dutelako! 13 egunetan 13 kontzertu eskaini dituzte Las Vegas, Los Angeles, Dallas eta Denver hirietan. Ermuko taldeak publiko handia dauka han eta zuzenean frogatzeko aukera izan dute. 17 urte daramatzate ‘Brutal Death’ estiloko musika egiten, euren pasioa da eta izena egin dute estilo horretako panorama musikalean. Musika taldea baino lagun taldea izanik, gehiago disfrutatzen dute euren musikak eskaintzen dienaz.

- Amerikako Estatu Batuetan (AEB) izan zarete bira eginen. Nolako esperientzia izan da? Nolako harrera izan duzue?

Esperientzia ezin hobea izan da! Bigarren aldia izan da guretzat AEBn eta orokorrean askoz hobeto joan zaizkigu gauzak. Orain arte egin dugun bira onena izan da zalantzarik gabe: antolakuntza, gainontzeko taldeak, publikoa... Harrera ezin hobea izan dugu, jendea oso entregatuta eta primeran tratatzen gaituzte han beti.

-Joan aurretik, Las Vegaseko kontzertua oso berezia izango zela zenioten. Zergatik? Horrela izan da?

Genero honetako festibal garrantzitsuenetakoa da Las Vegas Death Fest eta aurten zazpigarren edizioa izan da. Guretzako ohore handia izan da kartel-buru moduan egotea. Horrelako festibaletan toki askotatik etorritako jendea batzen da eta beti dago kontzertu arrunt batean baino publiko gehiago. Dena espero moduan irten zen, jendearen erantzuna bikaina eta gu oso gustura. Bueltatzeko desiatzen!

- 13 egun, 13 kontzertu. Egutero kontzertu bat, bidaiez gain. Gogorra izan da?

Bai, egunak pasatu ahala igartzen da nekea. Egutero 3-4 ordu bakarrik lo egin eta 8-10 orduko bidaiak... ez da txantxa!, eta gero gainera maila



eman behar da. Baina eszenatokira irteteen neke guztiak jotzen dira, ez dago aitzakiarik!

- Esan duzue, aurretik egon izan zarete Estatu Batuetan kontzertuak eskaintzen, ezta?

Bai, orain dela lau urte ere izan ginen. Lehen diskoa atera genuenetik disketxe amerikarrerekin lan egin dugu beti. Horrek ateak zabaldu dizkigu AEBra joaterako orduan eta poliki-poliki taldearen estatusa handituz joan da. Azken diskoarekin izan dugun harrera inoizko onena izan da, ikusmin handia zegoen.

- Nola sortu zen bertara joateko aukera?

Las Vegas Death Fest-en jotzeko eskaintza izan genuen eta horren inguruan bira egitea proposatu zigun disketxeak. Azkenean talde gehiago batu ziren birara eta oso kartel potentea osatu zen.

- Nolakoa da AEBko publikoa? Hemengoarekin alderatuz oso ezberdina?

Publikoa askoz beroagoa da orokorrean, kontzertuetan desfase gehiago dago. Bestalde, mentalitate guztiz desberdina dago, ez zaie axola 8 ordu bidaiatzea kontzertu bat ikusteko, beti etortzen zaigu jendea eskerrak ematera eta materiala erostera, edo euren etxeetan hartzen gaituzte... Badakite horrelako bira baten atzean esfortzu handia dagoela eta euren laguntza gabe ezinezkoa dela horrelako zerbait egitea "Underground"-aren inguruan beste kultura bat dago. Hemen jendea oso komodoa da.

- Eta merkatuari dagokionez, hangoa hemengoa baino hobea da zuentzat?

Musika hau oso gutxienekoa da, antzekoa da mundu guztian. Gainera gaur egun Internetekin dena oso globalizatuta dago, jende gutxi jarraitzen du, baina gutxi horiek oso leialak dira. Seguru jarraitzaile gehiago izango ditu AEBn, bertan sortu zelako eta tradizio gehiago dagoelako.

Egia da erraztasun gehiago dagoela han kulturaren inguruan, adibidez aretoak ez dute dirurik kobratzen bertan jotzearen, hemengo egoera lotsagarria da...

- Nola sortu zen Cerebral Effusion? Nolakoa izan zen taldearen hasiera?

Denbora asko pasatu da... Orduan zegoen musika baino zerbait zakarragoa egiteko gogoia zegoen gehienbat, Death Metal konbentzionalak ez zituen gure nahiak asetzen eta helburu horrekin sortu zen taldea. 1998an "Immortal Cemetery" lehen EP-a kalera tu eta jarraian Unmatched Brutality disketxe amerikarrerekin sinatu genuen. Hortik aurrera lau disko eta hainbat formazio aldaketa egon dira. Urteak pasatu ahala taldea beti aktibo mantendu da eta hor jarraitzen du traba eta moda guztien gainetik.

- 17 urte daramatzazue talde moduan, bost disko eta bizi-bizirik zaudete talde moduan. Zein da gako?

Hau gure pasioa da, barruan daramaguna. Ez da ba-

"Gizakiaren alde ilunena islatzen dugu letretan"



Drogetenituri, 236 zkia.




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

tere erraza hainbeste urtetan mantentzea. Eta ez hori bakarrik, gure buruari beti gehiago exijitzen saiatzen gara. Lan gogorra, pertseberantzia eta diziplina handia behar da, baina laurok garbi daukagu egin nahi duguna. Hortaz aparte, taldearen gainera lagunak gara, bestela ezinezkoa izango litzateke!

- Musika zuen ogibide bihurtu duzue?

Ez dugu taldea horretara enfokatzeko. Industria musikaletik alde batera mantentzen gara, diskete eta promotore independenteekin bakarrik lan egiten dugu. Garbi daukagu zein den gure lekua eta ez dugu sentitzen beharrik gure musika publiko masibora za-

baltzeko. Beste edozeren gainera gure buruarentzat egiten dugu musika.

- 'Brutal Death' musika egiten duzue, baina zer da 'Brutal Death'-a?

Death Metalaren eboluzio bat da, oraindik eta gehiago muturrera eramanda. Abiadura handiagoa, ahots graba-goak, astunagoa... 90 hamarkadan Suffocation, Deeds of Flesh edo Disgorge bezalako taldeek garatu zuten gehienbat, ordura arte zegoen komposatzeko modua guztiz aldatu zuten.

- Letrei dagokienez, zeri buruz abesten duzue orokorrean?

Fikziozko istorioak kontatzen ditugu. Gizakiaren alde

"Taldearen gainera lagunak gara, bestela ezinezkoa izango litzateke!"

ilunena islatzen dugu letretan, gizarteak hertsatzen duen alde bortitz hori azaltzean gertatzen diren istorioak, torturak, psikopatiak, pornografia... Hala ere, errealitateak beti gairatzen du edozein fikzio...

- Ingelesean zuzen abesti guztiak? Zergatik?

Musika honen hizkuntza ingelese da. Bertsoak euskaraz edo rantxerak gazteleraz diren moduan, death metala ingelesez da, bestela ez dauka zentzurik.

- Nolako mugimendua dago gaur egun Euskal Herrian musika mota horren gainean?

Ez dago mugimendu handirik, betidanik ibili garen jendeak jarraitzen dugu. Badaude beste 2-3 talde maila onak dutenak, baina musika oso gutxienekoa da.

- Hemendik kanpora joateko beharra sentitzen duzue zuzen musika baloratua izateko?

Ez da guk bilatu dugun zer-bait, horrela gertatu da. Guk gure baldintzak jartzen ditugu eta nahi duenak hor dauka, ez goaz inoren atzetik. Estilo honetako talde bat oso mugatuta dago zuzenean jozteko orduan. Publiko oso konkretu batentzako musika da, "brutal death" kontzertu batera estilo hori gustatzen zaion jendea bakarrik doa eta gu bezalako taldeak horrelako festibal edo biretan mugitzen dira mundu osoan zehar, hemen ez daukagu horrelakorik.

- Estatu Batuetan izan ostean, orain zer? Disko berririk egitea daukazu pentsatuta? Beste kontzertu edo birarik zehaztuta?

Bai. Hasi gara zerbait komposatzen, hala ere gure denbora hartzen dugu, buruari buelta asko ematen diogu dena gure gustura laga arte. Momentuz urrian eta azaroan bi festibaletan egongo gara Alemanian eta datorren urteari begira Asia aldera joateko asmoa daukagu.

Ekhi Velar



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

es
esolek
electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Testamentua egitera goazenean (eta III)

XXI. mende hasiera. Ezkontzeko asmoa eta mallabitarrak. Elizatea izanda Mallabia, bere berezitasunak dituen Bizkaiko Foru Zuzenbidea, *Derecho Foral* deritzona aplikatzen zaie bertako biztanleei: herritar forudunak, *aforados* dira mallabitar guztiak, baserritar edo kaletar izan. Zuzenbide Zibil Orokorra dagokien hirietako herritarrekin konparatuz, herentzia partitzeko eta izendatzeko moduetan ditu bere alderik nabarmenetakoa.


Abokatuak, notarioak, administrazioko langileak... dakite-nengana jo behar izan dugu gaiaren gaineko informazioa eskuratzeko. Foru Zuzenbidea antzinatik badator ere, eragiten dien pertsonen eskubideak bermatzeko eta betebeharrak erregulatzeko gaur egunean indarrean dagoen araudia bat da. Gutxi gora behera Durangaldeko herritarren % 65a da foruduna, mallabitarrak tarteko, eta gainotzekoak forugabeak dira, ermuarrak esaterako, Hiri edo Villa bateko auzotar izategatik Zuzenbide Zibil Orokorra dagokienei.

Mallabia bezalako gune forudunean bizi gara gutxienez 10 urtetik hona eta testamentua egitea erabakitzen dugu. Zer hartu kontutatan? Lehenengo eta behin seme-alabak izateak zeharo baldintzatuko duela gure partiketa, berauen artean gure ondasunen lau bostenak (4/5) banatu beharko ditugulako, beste bostena

askatasun osoz nahi dugun modura eta nahi dugunari banatu diezaioketuen arren. Gainera Bizkaiko Foru Zuzenbidearen arabera, testamentugileak erabaki dezake oinordeko bati guztia edo zati handiena heredatzea, gainerako guztien kalterako. Orain, seme-alabarik ez izatean, ondasunen erdia testamentugilearen gurasoengana doan bezala, beste erdia alargunak eskuratzen du.

Bestalde, tronkalitatea da Bizkaiko Foru Eskubidearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Bere bitartez bermatu nahi da familiaren enboreko ondasunak familian bertan geratzea, zatiketa barik, eta Foruaren izpirituari men eginez beti ere: "Enborra doala enborrera eta sustraia sustraia".

Tronkaleko kontsideratzen dira odoleko zein adoptatutako seme-alaba guztiak, hauen ondorengo zuzenak, arbasoak eta baita enbor bereko zehar-ahaideak, lau-



garren graduko senitartekotasunera arte. Familiatik datorren ondasun bat eskuratzeko orduan, kanpoko edozein erosleren aurretik lehentasuna dute tronkerok. Gainera, enberrari lotutako balizko salmenta bat komunikatzen ez bazaie, "Saka" deituriko eskubidearen babesean, salgai jarri

den ondasuna eskuratu dezakete, tasatu zenean aurreikusitako diru kopurua ordainduz.

Ezkondu zela izatezko bikoteendako

Eremu forudunean, legeak ez du desberdintzen pertsona ezkontua edo izatezko



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

Fernando de Mendietak margotuta, Fernando errege Katolikoa Foruen zina egiten Gernikan, 1476 urtean.



bikotea izan; kasu bietan eskubide eta betebeharrak berdinak ematen dizkie bikotekideei. Jatorriz gizonaren edo andrearen aldekoak diren erreparatu gabe, batera izango dituzte ondasun guztiak, mugikor zein mugiezinak izan. Ondasun pribatibak daudenean tartean ere, hau da, alde batak bere herentzia pertsonalez jasotakoak, horien edozein trantsaziorako (salmenta, donazio...) bikotearen baimena behar du.

Senar-emazteek, ezkontza aurretik edo haren ondoren, elkar izendatu ahal dira bestearen komisario "Alkar-poderoso" formula juridikoaren

bitartez, hau da, erabateko boterea emanaz batak besteari eta alderantziz. Berori erabiliz, alargun geratzen denak bion ondasunen gainean erabaki dezake, testamentua nahi beste bider aldatu, seme-alaba baten edo bestearen alde egin...

Azkenik, jakin alde interesatuek beraien arteko erregimen ekonomikoa hitzartzeko askatasuna dutela, berau legeztatze ezinbestez notario aurrean sinatuz. "Ezkontza kapitulazioak" deiturikoak dira horiek eta ezkontza aurrera ez badoa, adostutako guztia indargabetuta eta balio gabe gelditzen da.

Hitzarmen ekonomikorik sinatuta ez badago, Bizkaiko Lur Lauko auzokidetasuna duten pertsoneri, Mallabiko Elizatekoek esaterako, ezkontideetako bat hil eta ondorengoak daudenean, ondasunen "Foru-komunikazioa" aplikatzen da, andra zein gizonaren ondareak elkartu eta bakarra egin ahal izateko. Jakina da makinatxo gauza lotzen ditugula gure ezkontzarako eta asunto hauek ondo argituta lagatzeak, etorkizunean arazo eta txarto ulertze ugari saihestu ditzake.

Zuzenbide Zibil Lege berri eta gaurkotua onartu du uz-

taila hasieran Eusko Legebiltzarrak eta urrian jarriko da indarrean, Erkidegoko biztanle guztiei eraginez, eremu foruduneko edo forugabeko auzokidea izan. Gaingaitetik ukituz, gairen zertzeladaxo batzuk besterik ez ditugu ekarri orriotara, hain leku gutxitan sakontzea ezinezkoa izan zaigulako. Beraz, gogoan izan gaia interesgarria den neurri berean, kasuan-kasuko zirrikitu eta bariante asko dituela. Ez goaz gu hemen abokatu, notario edota administrazioko langileei euren lana urratzera; zalantzak argitzeko, inor ez beraiek baino egokiago.

Estibalitz González

Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

SEHIGA
 PROTECCION LABORAL
 "LAN BABESERAKO
 ORNDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
 Tel: 943 172 454
 sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
 Tel. 943 17 66 34
 Tel. mugikorra 630 01 13 41
 48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
 Tel. 943 17 98 60
 48260 ERMUA (Bizkaia)

MANUEL BAUTIS

- Zer suposatu du zuretzat Galiziako Etxeen Urrezko Intsignia jasotzek?

Poz izugarria, emozio handia sentitu nuen. Aurretik Ermuko Galiziako Etxeak eman zidan Urrezko Intsignia 2008an, baina hau jasotzea ohore handia izan da. Gure kulturaren alde lan egindakoagatik jasotako saria da eta harro nago.

- 'Galiziatasuna' barnean daramazu?

Noski! Bihotzean daramat. Han jaio eta hezi nintzen. Gaztaroa han igaro nuen, bizitzaren momentu onenak direnak. Han ezkondu nintzen baita ere!

- Santiagon de Compostelan jaio zinen.


Bai, Errege Katolikoaren hostatuan, katedralaren alboan. Lehen ospitalea zegoen han.

- Noiz hartu zenituen gurai-zeak lehenengo aldiz.

14 urterekin, han bertan, etxe alboan! Anaia batzuen ile apaindegian aritu nintzen zerbitzu militarra egin arte. Gero, Durangon bizi zen koinatuak hemen lana zegoela esan eta etorri egin nintzen.

- Baina zuk ile apaintzailea izan nahi zenuen?

Bai, nire bokazioa zen. Orduan, egunkaria ikusi nuen Ermuan ile apaintzaile bila zenbiltzala, 'Felix' ile apaindegian zehazki. Proba egin eta hartu egin ninduten. Nik eskarmentua neukan, 12 urtez ile apaintzaile bezala ibili bainintzen. Pertsona zoragarria zen Felix. Gainera, etor-



Galiziatik Ermura Durangotik pasa ostean. 1967an heldu zen gurera Manuel Bautis eta milaka buru pasa dira bere eskuetatik. Ile apaintzaile honek Urrezko Intsignia jaso berri du Euskadiko Galiziako Etxeen eskutik. Galizia bihotzean darama, baina Ermua asko maite du.

kizunean nire kidea izango zenarekin egin nuen lan han.

- Gustura, beraz, lan aldatzarekin?

Bai, nahiz eta pentsatu izan dudana beste lana ere ondo egongo zela. Baina tira, gehiago gustatzen zitzaidan aukeratutakoa. Gerora lan asko egin dut, herritarrek asko lagundu didate bezero moduan eta ilea moztzen familia aurrera atera dudala esan nezake.

- Bezeroen eskakizunak asko aldatu dira hasi zinenetik gaur egunera arte?

Bai, oso ezberdina da! Gaur egun mutil askok euren txo-

koetan egiten dituzte ile-mozketak, edozein modutan. Batzuk makinatxoarekin moztentzate ile guztia. Hori edonork egin dezake! Ile-mozketa klasikoa egitea beste kontu bat da eta ondo jakin behar da egiten. Profesio bat da, ez edozein kontu!

- Galizia faltan botatzen duzu?

Galizia eta Santiago odolean daramatzat. Nire jaioterria zoragarria da. Baina gaur egun esaten badidate bihar Galiziara joan naitekeela, ezetz esango nuke. Nire bizitza hemen dago, denek ezagutzen naute, nire seme-ala-

bak hemen daude, nire iloba ere... Bizitzaren hiru laurdenak hemen egin ditut, beraz, nire bizitza Ermuan dago.

- Zer ekarriko zenuke Galiziatik Ermura?

Han dagoen familia.

- Seme batek zure pausoak jarraitu ditu ile apaintzaile bezala.

Beste batek ere ile apaintzaile ikasketak egin zituen, baina orain Orbean dihardu lanean.

- Zer moduz jubilatuko bizitza? Zoragarri! Sukaldaritza asko gustatzen zait, ilobarekin denbora asko pasatzen dut, etxea garbitu, pasioak eman...

- Zure jaki gustukoena?

Ez daukat jaki kuttunik. Dene-tarik jaten dut! Txipiroiak sal-tsa galiziarrean ederto egiten ditut.

- Bidaiatzea gustuko duzu?

Bai, baina ez dut asko bidaiatu diruak ez zuelako horretarako ematen.

-- Munduko txoko gustukoena?

Rias Baixas, Galizian.

-- Zer erakutsi dizu bizitza?

Aurretik egin ez dituzun gauzak baloratzen. Etorri nintzenean hemen euskara debekatuta zegoen, baina atzera egiterik banu, musean egitera ikasi beharrean euskara ikasiko nuke.

- Baduzu betetzeko ametsik?

Nuena bete nuen nire emazte-arekin urrezko ezteiak ospatu genuenean

Ekñi Velar

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

ONDO PASA SANTIXAUETAN!



UZTAILAREN 24a, OSTEGUNA

- **16:00** hilaren 27ko eguerdiko 12ak arte iraungo duen POSTUREO ARGAZKI LEHIAKETAREN hasiera, Ermuko Gazte Asanbladak antolatuta.

- **17:00** Patxi plazan, JAI-OPARI BANAKETA

hanigan's
Irish Tavern

**Gosari, bazkari eta afariak
-eramateko prestatzen dugu-**

**Pintxoetan eta
garagardoetan aukera zabala.**

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527

Drogomenpeketasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.

- **19:00** Orbe Kardinalaren plazan Irulitxa musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA Irulitxa eta New Tocados musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta.

- **23:00etatik 04:00etara** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Nueva Alaska orkestrarekin.

- **00:30etatik 04:00etara** San Pelaio plazan, Beti txarto taldeak antolatutako MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA ondorengo taldeekin: Charles Ramírez (Clarisse, Suara, Hof Rec.), Stan Garac (Viva Music, Hof Rec.), Javier Ganuza (Modern People, Revolution Rec.), Erikss (Material, Hof Rec.) eta Alexander M (Technoxp).



UZTAILAREN 25a, LARUNBATA

- **7:00** TXOKOLATE-JANA plazan.
- **7:30** Plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8:00** SOKAMUTURRA Ongarai Eskolako patioan.
- **11:00** San Pelaio Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2015 SARIA.
- **12:00/14:00** eta **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:30** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patrioiaren omenez.
- **12:30** HERRI-KIROL ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan:
HARRIJASOTZAILEAK: Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta Aritz Etxebarria.
IPARRALDEKO JOKOAK: Zelai-Luze eta Karmele Gisasola.
BIKOTEKA PROBA: Jon Gisasola eta Ioritz Gisasola Aritz Etxeberria eta Hodei Ezpeletaren aurka.
AIZKOLARIAK: Jesus Gisasola, Bihurri II, Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola.
- **12:30** KALEJIRA Korko txarangaren eskutik.
- **16:00** San Pelaio Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2015 SARIA.

HAMBURGUESERIA

TITANIC

Cantabria 2 · 48260 ERMUA (Bizkaia) · 943 17 67 83

- **17:00** Aritzmendi pilotalekuan PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK: Mtnez. de Irujo-Irusta / Altuna III- Zubietaren.
- **18:30etatik 21:30etara** San Pelaio plazan jarriko den gune berezian, "Sie7e" ANTZERKI IKUSKIZUNA, Ymedio Teatrotoren eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.
- **19:00** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, KALEJIRA Korko txarangarekin.
- **20:00** LARRAINDANTZA izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **20:30** Orbe Kardinalaren plazan EUSKAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA.
- **22:30** Guillem Alba y Cíak taldeak "Marabunta" KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio plazan.
- **23:00etatik 04:00etara** Orbe Kardinalaren plazan Vulkano show orkestraren DANTZALDIA.
- **00:00etatik 04:00etara** San Pelaio plazan, Beti Txarto taldeak antolatutako ROCK JAIALDIA bertako Orihen taldea eta Frenetik eta Rolling Dice taldeekin.



ASTARLOAN

GOXO GOXO

Kafé & Deliss

Tfo.: 943174612



Menua, kaxolak,
razioak, pintxoak...
Plater konbinatuak
5€ tik aurrera!
Ogitartekoak,
hanburguesak...

Tel. 943 17 15 57
ERMUA

TR. KANTABRIA N°1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)

infretaberna
Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584



Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

UZTAILAREN 26a, IGANDEA

- **7:00** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7:30** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **11:00** Ermuko Txirindulari Elkarteak antolatutako nazio mailan umeentzako (neska eta mutilak) 2015eko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA, Anbreko industriagunean.
- **12:00/14:00** eta **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:00** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK ENTREGATUKO ZAIZKIE Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **13:00** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14:00** Aritzmendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **18:00** ESKUPILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan:
4,terdiko partidua Egiguren Etxeberriaren aurka, ondoren neskeen arteko partidua

DESCUBRE-TE
Teak, kafeak, txokolateak,
ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubreteneu@hotmail.com
www.teteriadescubre-te.com

- Larrabetzu neska pilotarien elkartearen partaidekin, eta bukatzeko Elordi (Mallabia) – Erostarbe (Urretxu) Errandonea (Bera)- Martinezen (Bera) aurka.
- **18:30etatik 21:30etara** San Pelaio plazan jarriko den gune berezian, "Sie7e" ANTZERKI IKUSKIZUNA, Ymedio Teatroren eskutik.
 - **19:00** Gari, Montxo eta Joselontxok PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
 - **19:00** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
 - **19:00** KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.
 - **20:00** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.
 - **22:30** Borja Ytuquepintas taldeak "Sueños de arena" KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio plazan.
 - **22:30** Aragoneko Capicua taldeak *Entredós* KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaio kaletik hasita.
 - **23:00etatik 04:00etara** Pasarela Orkestrak, DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.
 - **00:00etatik 04:00etara** San Pelaio plazan, Beti txarto taldeak antolatutako WOLD MUSIC JAIALDIA Batu eta Tacumah Reggae Band taldeekin.



BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eralkina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

GINEKOLOGA

M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTICULAR ETA ASEGURU-ETXEAK
IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON,
Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsas,
Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA

Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600-EIBAR
(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan

Telefonoa: 943 20 28 57



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotenzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarbiketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com



UZTAILAREN 27a, ASTELEHENA

- **7:00** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7:30** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8:00** SOKAMUTURRA Ongarai Eskolako patioan.
- **10:00/11:30** Arroz banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, PAELLA LEHIAKETARI ekingo zaio haur eta helduen kategorietan.
- **11:00** Martxoak 8 plazan SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12:00/14:00** ETA **17:00/20:00** UMEENTZAKO PARKEA San Martin plazan.
- **12:30** KALEJIRA Berria txarangaren eskutik.
- **14:00** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO DIRA eta ondoren ohiko HERRI BAZKARIA.
- **18:00** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.



- **19:00** KALEJIRA Berria txarangaren eskutik.
- **19:00** Paella lehiaketaren epaimahikoek IRABAZLEAK ezagutaraziko dituzte eta SARI-BANAKETA egingo da plazan.
- **19:15** Orbe Kardinalaren plazan, AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztiarentzat.
- **20:00** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **22:00** KONTZERTUA Emon taldearen eskutik.
- **23:30** Irulitxa musika-bandaren ONGIETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00:00** SUZIRIAK Ongaraiko parkean. Ondoren KALEJIRA plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00:30** JAIEN AMAIERA. Jeanette taldeak kontzertua eskainiko du plazan.



Argazkiak: Santos Vega eta Ekhi Velar.



Pub **ER**

Ondo pasa Santixauetan!!



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



Aitor Gonzalez, txirrindularia:

“Zaila da profesionaletara salto egitea, ia ez dago aukerarik”

Hiru lasterketa irabazi ditu aurten Ermuko txirrindulari honek, Euskadiko Txapelketa barne, eta profesionalen aurrean aurpegia ematen ibili da ahal izan duenean. Peio Goikoetxea herrikidearekin batera Ermuko txirrindularitza berriz ere goi-mailara eramateko bidean dago, baina pedalkada gogorak eman beharko ditu oztopoak gainditzeko


- Zure kirol ibilbideko momentu onenean zaude?

Bai. Normalean urtean lasterketa bakarra irabazten dut. laz bi irabazi nituen, baina aurten hiru garaipen lortu ditut jada eta oraindik urte erdia falta da denboraldia amaitzeko.

-Hala ere, Espainiako Txapelketan profesionalekin lehiatzeko aukera izan zenuen.

Bai, elite eta profesionalak batera aritu ginen.

-Bada ihesean ibili zinen!



Aitor erasoan

lhesaldian sei sartu ginen eta ni nintzen elite bakarra, baina gero harrapatu gintuzten.

-Alde handia dago elitekoekin lehiatzetik profesionalekin aritzera?

Tira... lasterketa horretan ez zegoen mendate gogorrik, baina haizea eta bero handia zegoen. Zirkuitu bati bueltak eman genizkionez, taldeko laguntzaileak bidean jartzen ziren eta behar genuena ematen ziguten. Ura momentu oro!

-Lasterketa Alejandro Valverdek irabazi zuen.

Baina hori aurretik idatzita zegoen! Gainera, etapa amaiera aldatxo batean zegoen, berarentzat oso aproposa zena, eta talde oso indartsua zeraman berarekin. Espainiako Txapelketan ez dagoenez taldekide mugarik,



Aitor Peio Goikoetxearen errobera jarraituz

Movistar txirrindulari askorekin irten zen lasterketara eta dena nahi zuten bezala kontrolatu zuten.

-Aurretik profesionalekin lehiatzeko aukera izan duzu?

laz Espainiako Txapelketan ere izan nintzen eta aurten Espainiako selekzioarekin Gaztela Leongo Itzulian aritu nintzen. Movistar, Caja Rural eta Europcar bezalako taldeak egon ziren han, eta Pierre Rollandek irabazi zuen. Esperientzia ona izan zen. Askok sufritzen duzu, baina aurretik 20 bat txirrindulari doazenean, atzekoak antolatu eta helmugara iristea da helburua.

-Datorren urtean profesionaletara jauzia egiteko aukerarik ikusten duzu?

Krisiarekin zaila da, izan ere, ez badira taldeak irteten, ez dago ia aukerarik. Nire aldetik dena jarriko dut hori gerta dadin, baina itxarotea besterik ez zait geratzen.

-Aurten lortutako emaitzeekin, beste taldeek jarriko zituzten begiak zuregan bada.

Espero dut, baina ez dakit.

-Bestela ere, zein da zure asmoa?

Afizionatueta jarraitzea ez behintzat, ez digutelako ordaintzen eta ahora zerbait eramateko dirua irabazi behar da.

Ekhi Velar

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Zure publizitatea:

drogeteniturri
aldizkarian

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

T XALAPARTA
ABERNA

**Etan asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

**Erdikokale 13
(Ermua)**

**ENKARGYAK
943 030 299**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Musika doinua ez da eteten

Aurreko orrialdeetan Cerebral Effusionekin berba egin badugu, oraingo honetan herriko beste bi musika talderen berriak dakartzagu. Bata aski ezaguna da, PAM (Puto Amoak Matematiketan), eta bestearen izena berria bada ere, Issuna, talde moduan urteetan zehar aritu dira Multa izenarekin. Biek ala biek disko berriak kaleratuko dituzte egunotan.

‘Hurrengoan bai’ titulua daraman diskoa egin du PAM-ek. “Hurrengo bano eskasagoa izatea espero dut”, dio Markos Gimeno taldeko kideak barre artean. “Grazia egiten digu izenburuak ez dakigulako hurrengo diskorik egongo

den”. Izenburuarekin, hala ere, aterako duten (ateratzen badute) hurrengo diskoa benetan izango dela ona ziurtatzen dute. “Taldearekin zentzua duen izenburua da. Egia esan, badaukagu ideiak hurrengo disko bati begira, zerbait ezberdina egiteko asmoarekin, baina agian ez da beste diskorik egongo. Nor daki!”.

Hamaika abesti ditu digipack formatuko diskoak eta lan egiteko prozesua aurreko diskoaren antzerakoa izan dela argitzen du Gimeno. Hala ere, estiloari dagokionez “kantu oso ezberdinak dira, eta badauka Ikerrek (Saenz de Zaitegi) utzi eta Jokin (Azpiazu) sartu zenean hartutako pop estilo kutsua”. Beraz, lehen diskoetako estilo gogorra pixka bat alboratu eta soinua aldetik “pop-agoa da” ‘Hurrengoan bai’,



euren seigarren diskoa. Gimeno, hala ere, diskoak PAMen esentzia mantentzen duela azpimarratzen du, baina beste bide batzuk hartzen ausartu direla dio.

Taldekideak oso pozik daude emaitzarekin, nahiz eta grabazioa “denboraz estututa” egin duten. Eurak arduratu dira grabaketaz soinuteknikari baten laguntzarekin eta, diskoa eginda badago ere, fabrikako kostuak betetzeko crowdfunding kanpaina jarri dute martxan verkami.com webgunean (PAM jarri bilatzailean). “Ekimen honen

bitartez proiektua finantzatu, promozioa egin eta, aldi berean, CD-ak saldu eta aurkezpenarako deialdia egiten dugu”. Ia bete dute eurek ezarritako kopurua eta pozik daude izan duen erantzunarekin.

Gimeno azaldu bezala, irailaren 26an diskoaren aurkezpen jaialdia egingo dute Lobiano jauregian. Bertan abesti berriekin kontzertua eskainiko dute, gero atsedena hartzeko lunch-a egingo da Lobiano-ko atzeko aldean eta, ondoren, aspaldiko kantu eta bertsoekin beste emanaldi bat eskainiko dute.





**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J. LUCAS
PINTURA EN GENERAL



630 22 51 36

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

MUGA



KILOGR

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

Issuna taldearen lehen diskoa

Aurreko izena euskaratu eta 's' bat gehitu dio Multak bere izenari Issuna bihurtzeko. "Ia dena euskaraz egiten genuen eta aproposa ikusi genuen taldearen izena aldatzea", dio Adeik. 2010 urte inguruan Multa sortu zuten kideek jarraitzen dute taldean: Adei (bateria), Iker (baxua eta ahotsa), eta Aaron eta Bikendi (gitarra eta koroak). Orain, izen berriarekin egindako lehen diskoa kale-ratuko dute: 'Zapuztutako guztia suspertzen duen lehen urratsa'.

Diskoaren izenburua "ez da arrunta", Adeiren ustetan, "diskoa ere ez delako arrunta". Esan daiteke, bai, bitxia dela, abesti bi besterik ez dituelako. "Bata, 16 minutu ingurukoa da eta, bestea, 30 segundotakoa". Arruntetik harago joan nahi izan dute Issuna taldekoek. Abesti luzea-

ri dagokionez, denetarik daukala dio Adeik. "Zati azkarak, lasaiak, astunak..."

Eurak arduratu dira grabaketaz. "Argi geneukan 'do yourself' filosofiari jarraitu nahi geniola". Grabaketa aparatua erosi, etxean ziztuzten ordenagailuak hartu eta grabaketari ekin zioten. "Multa bezala egin genuen diskoak ez zuela soinu onik igartzen da, baina azken honetan laguntzarekin emaitza ona lortu dugu". Eurek nahiago dute horrela lan egin estudio batera joatea baino. "Aberasgarriagoa da. Denbora asko eskaini diogu, baina denok ikasi dugu zerbait". Gainera, diskoa eurena gehiago dela sentitzen dute horrela. Pozik daude emaitzarekin eta entzun dutenen artean ere erantzun ona jaso dutela dio Adeik. "Gure helburua aurreko diskoa hobetzea zen eta uste dut lortu dugula".

Sortutako lana inguruko "hogeita hamarnaka" disketxetara bidali ostean, Alemaniako Santadiabla DIYkoen aldeko erantzun jaso zuten. "Ezusteko polita izan zen! Arduradunari guk euskaraz egitea eta diskoa nahiko bitxia izatea asko gustatu zitzaion".

Issunaren lan hau biniloan dago eskuragai. 'Boom' antzerakoa bizi da biniloaren inguruan eta Adeik onartzen du eurak kontzertuetara doazenean biniloan erosten dituztela beste taldeen lanak. Eurek ere, beti nahi izan dute biniloan zerbait kalera-tzea eta disketxeak hori ahalbidetu diela dio. Hala ere, nahi duenak CD formatuan edota Interneten (issuna.bandcamp.com) ere lortu dezake Issunaren disko berria.

Orain atzerrira joango dira hainbat kontzertu ematera. Uztailaren 24ean Zurich



arituko dira, hilaren 28an Tolosa Okzitanian eta abuztuaren 1ean Berlinen, Köpin. "Etxe okupatu handi bat da eta Inter-Rail egiten han egon ginenean zoragarria iruditu zitzaigun. Bada orain han kontzertua eskainiko dugu!".

Ekhi Velar

Ugaro

aholkulariak

Zubiaurre 27

943 17 43 44

Bai Chef!

Hilabete honetan jakin dugu Basque Culinary Centerreko lehenengo promozioa graduatu dela, eta horrekin konturatu naiz bost urte pasa direla jada fakultate hori zabaldu zenetik, eta denbora honetan bizi izan dugun “burbuila gastronomikoari” erreparatu diot.

Elikatzea plazera bilakatu den gizakion behar bat da, baina azken bolada honetan argi dago harago joan dela eta sukaldaritza modan jarri dela. Horren frogarik argiena, telebistan, kate guztietan ikusi ahal ditugun sukaldaritza saioak dira: zuzenean egindako errezetak, umeentzako sukaldaritza, profesionalentzako lehiaketak, amateurentzako txapelketak... Argiñanoren lehenengo saio hark erabat gaudituz egiten duen negozio borobila.

Baina telebistaz gain, cup cake, cake pop eta muffin al-dizkariz eta liburuz beteriko apalak ikusi daitezke edonon. Goi mailako sukaldaritza edozeinen eskura dagoela ematen du. Edozeinek oliba esferifikazio bat egin ahal duela sinestarazten digute eta gehiengoak, noizbait, sinistu dugu.

Inguruko guztiek sukaldean nola “disfrutatzen duten” ikusten duzunean zuk ere mundu horren partaide izateko gogoia edo obligazioa, edo bietako apur bat, sentitzen duzu eta Masterchefen ikusitako “El Celler de Can Roca” jatetxeko azken postrea egitera animatzen zara. Subidoi hori osagai guztiak mahai gainean biltzea lortzen duzenerako desagertzen da eta gauzak ez direla saldu dizkizuten bezain errazak ohartarazten zara. Zure sortze-lanak ez daukala postre itxurarik ikus-



Alicia Lorenzo

ten duzu eta irabiagailuan sartu behar duzula jogurt moduan atera ahal izateko. Hor amaitzen da zure ametsa eta zure espezialitatea solomoa piperrekin izaten jarraitzen duela aitortu behar duzu.

Zer egingo diot ba? Denetik egon behar da mundu honetan. Nahiz eta leku guztietatik sukalde-estimuluak jaso, denok ez gaude prest pauso hori emateko.

Beraz, zuek jarraitu zuen trebetasunak aztertzen eta besteok zuen kreazioak dastatzen jarraituko dugu (edo ez).

Baina guztioi: ON EGIN!

Badirudi, nahi barik bada ere, bizia sortzeko ditugun aukerak mugatu ditugula

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Enrailak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzariak

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

ETXEBIZITZA SALGAI

Erdialdean, 60m². 3 logela, sukaldea, komun bat eta egongela. Guztiz berriztuta. 676189773 edota 630825984.



Uztailak 20
Zorionak Ariane eta Ander zuen 22. urtebetetzea. Oso ondo pasa. Asko maite zaituztegu. Etxeko danen partetik!



Uztailak 12
Zorionak Paula!!! Ondo pasa zure 8. urtebetetzea. Musu handi bat!



Uztailak 9
Zorionak Mikel!!!! Musu erraldoi bat etxeko guztien partez eta disfrutau eguna!



Abuztuak 3
Zorionak ANER!! 5 Urte dagoeneko. Muxuak Hodei, ama eta aitaren partez!



Abuztuak 2
Zorionak Beñat! Oso ondo pasa! Hama, Aiora, Maier eta Xubanen partez!



Irailak 5
Zorionak Hama familia osoaren partez! Patxo potolo bat txapeldun!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
IRAILAREN 16a



Uztailak 12
Gure etxeko marimatrakak 4 urte!!! Zorionak Lur, jarraitxu hain jatorra ta txaplata izaten! maitxe zaitxugu!



Uztailak 27
Zorionak Iker zure 10. urtebetetzean, dagoeneko mutil haundi egiten ari zara. Muxu haundi bat zure familiakoan partez!

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnua. 943 17 46 51



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MALLABIA 1958

José Martín Arriaga eta Tomasa Azpitarteren (Ametzakoak) urrezko ezteiak ospatzen dira.

Bertan agertzen dira, ezkerretik eskuinera.

Goian: Andoni Monforte, Inazio Etxebarria, Benito Aginaga, Justo Etxebarria, Facundo Narbaiza, Ambrosio Arregi, Basilio Arriaga, Benito Aranburu eta Justo Arriaga.

Azpian, bigarren lerroan: Blanca Aginaga, Paula Arriaga, Concepción Arriaga, Victoria Olalde, Camila Aranburu, Simona Kortabitarte eta Josefa Arriaga.

Azpian, hirugarren lerroan: Jose Mari Arriaga, Juanita Arriaga, Desi Arriaga, Tomasa Arriaga, Jose Martin Arriaga, Tomasa Azpitarre, Enrique Arriaga, eta horren altzoan Javier Arriaga, Rosario Narbaiza, Pedro Arriaga eta altzoan Begoña Arriaga.

Azpian: Mari Tere Arriaga, Armando Aginaga, José Luis Arriaga eta Benito Etxebarria.



ERMUA 1957



“Hazi Eguna” deitzen zioten Ermuan Santixau eguneko hurrengo domekari. Baserriko generoen azoka bat egiten zen eta orturako haziak saldu; hortik datorkio izena. Egunean zehar egindako idi-dema entzutetsuengatik ahoz izan dugu haren berri, baina idatziz ere topatu dugu bere lorrotza. “La Voz” egunkariak, Eibarko korrespontsaliatik, 1930ean zera jasotzen zuen:

“El ayuntamiento de la villa de Ermua, satisfecho por la afluencia de forasteros que acudieron por las fiestas de Santiago y Sta. Ana, se dedica a confeccionar un programa selecto para el próximo domingo, día 3, como repetición de las fiestas patronales. Entre otros festejos organiza concursos a la raya, de bolos, bueyes...”.

Argazki hau Probalekuko enkantxuan atarata dago; ikusleak, ikusmiran, Ugaldeneko etxe-ormaren kontra daude.

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [B]

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



Santixauetan ia herri osoa kalera irtengo da festaz, dantzaz eta musikaz gozatzeko. Ia osoa, izan ere, askok herritik kanpora joatea erabakitzen dute jai egunak aprobetxatuz, Ermuko iskanbila eta jai giroa albo batera utzita.

Santixauak herrian pasatuko dituzu edo kanpora zoaz?



Ni hemen geratuko naiz, urtero bezala. Santixauak asko gustatzen zaizkit eta aurten ere disfrutatzea gustatuko litzaidake. Batez ere uztailaren 24ko kalejira gustatzen zait. Ederto pasatzen dugu!

Jose Romero, 20 urte



Urtero Santixauak Ermuan pasatzen ditut eta aurten ere horrela izango da. Giro polita bizi da herrian eta asko gustatzen zaizkit jaiak. Kalejira egin, etxeetatik botatzen duten uraz busti... oso ondo dago!

Nora Baza, 15 urte



Tabernan lan egin beharko dut, baina ea handik pixka bat irten eta jaietz gozatzeko aukera dudan. laz ezin izan nuen ia disfrutatu lana egin behar izan nuelako. Jaiak politikak dira eta jendea asko inplikatzeko da, beraz, giro oso ona sortzen da herrian.


Maite Herrera, 31 urte



Herritik kanpo joango naiz Galiziara. Santixauak gustatzen zaizkit, baina normalean kanpora joaten naiz familiarekin. Oporretara joaten garen, hemendik kanpo ere oso ondo pasatzen dut.

Xabier Cid, 15 urte

Tasio eta Sabino



-Kanpoan egon arren, ermuar batek bere festak ondo ospatu behar ditu. Gora Santixauak!

UDAKO ZINEA

Abuztuak 3:

El cuarteto.

Abuztuak 5:

X-men: días de futuro pasado.

Abuztuak 10:

Cómo entrenar a tu dragón 2.

Abuztuak 12:

El amanecer del planeta de los simios.



Abuztuak: 17:

Pingüinos de Madagascar.

Abuztuak: 19:

Godzilla.

Abuztuak 24:

Paris a toda costa.

Abuztuak 26:

Amor en su punto.

22:00etan, Orbe Kardinalaren plazan. Euria egiten badu, elizako aterpean.

Patxi López

Mallabiko Andra Mari jaiak 2015

ABUZTUAK 14, ostirala, UMEEN EGUNA

11:00-12:30 Mallabiko trikitalariak
 11:30 Umeen txupinazoa botako du Alkate txikiak
 12:00-14:00 /16:00-18:00 Umeentzako parke berezia: puzgarriak, junping... parkean
 18:00 Bits festa parkean
 18:00-21:00 "Tiakatu" batukada
 19:00 Txupinazoa Nahikari emakume elkartearen eskutik
 19:30-21:00 Txokolatada plazan eta ondoren Adarra jotzen (sariak egongo dira)
 21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean.
 -Elezkano-Iza // Olaetxea-Ibai Zabala
 -Berasaluze II-Albisu // Urrutikoetxea-Aretxabaleta
 Sarrerak abuztuaren 3tik 12ra salgai udaletxean
 Partidu egunean takila 21:00etan zabalduko da eta sarrerak denentzat 25 eurotan egongo dira
 23:00 Erromeria Basajaun taldearekin plazan

ABUZTUAK 15, ostirala, ANDRA MARI eguna

11:00 Meza Jasokunde parrokian. Ondoren kalejira plazatik frontoira Mallabiko dantzariekin
 12:15 Mallabiko dantzarien emanaldia frontoian, ondoren Bixente Amestiri omenaldia
 17:30 Tute, mus eta briska txapelketa tabernetan
 17:30 Mallabiko XXV. Harri-jasotze saria Harri Txikia
 TOKIA: Mallabia I Kirol Etxea
 100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola
 Parte-hartzaileak: Inhar Urruzuno (Bizkaia), Izeta III (Gipuzkoa), Mikel Lopetegi (Gipuzkoa), Aimar Galarraga (Gipuzkoa), Iñigo Izagirre (Gipuzkoa), Xabat Odriozola (Gipuzkoa), Josetxo Urrutia (Nafarroa).
 Lehiaketan parte hartzeko izen ematea egun berean amaituko da.
 19:30 Kale antzerkia: parkean
 23:00 Demode Quartet taldearen ikuskizuna parkean

ABUZTUAK 16, larunbata, SAN ROKE EGUNA

NAGUSI eta KOADRILEN EGUNA

11:00 XVI. PAELLA ETA IV. MARMITAKO LEHIAKETArako izen ematea
 12:00 Meza Jasokunde parrokian
 12:00etatik aurrera "Asto tonbola" parkean
 13:00 MARMITAKOaren eta 13:30 PAELLAREN aurkezpena epaimahaiaren aurrean eta jarraian sari banaketa
 -Taldea bakoltzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin
 -Lehiaketa herriko plazan egingo da
 Mallabiko Trikitalariet animatuko dute giroa
 14:00 Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean trikitalariet girotuta
 17:30 Koadrilen arteko jolasak (Antolatzailea: Mallabiko Gazte Asanblada).
 20:00 Mallabitar guztientzat sagardoa doan eta txerri errearen dastaketa (2 pintxo 1€)
 20:30 Erromeria plazan Luhartz taldearekin

XXVII. IDI PROBA TXAPELKETA: ABUZTUAK 21,22,23 eta 24
 Izena ematea: abuztuaren 2an (igandea) eguerdiko 12:00etan udaletxean

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO

-ARRAINDEGIA
 -ITSASKIAK
 -ARRAIN FRESKOAK ETA
 IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
 " 17 24 33 (etxea)
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
 ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardena Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ONAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 Hertz Klinika - Clínica Dental
Leire Irazu Garitaonandia
 • Ortodontzia • Aho zirujia
 • Periodontzia • Implanteak
 • Odontologia orokorra
 Zeharkale 8, behe 943 17 71 34
 www.irale.com

Yoga eskola
 Amasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea
 IRAILAREN 7AN
 hasiko gara

Sanatana Dharma
 San Roke 24, behea
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia)

san pelayo
 clínica dental hertz klinika
 Implanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hertz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
 San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
 - Aho eta inplante kirurgia
 - Hortzetako protesiak
 - Hertz estetika
 - Ortodontzia
 - Odontopediatria
 - Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

NATURA 
 Cristina García Pérez
 Belar-denda eta dietetika
 • Elikagai biologikoak
 • Terapia naturalak
 • Naturopatarekin kontsultak
 • Masajeak
 • Dietistarekin kontsultak
 • Kosmetika biologikoa
 Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber
 Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

HEMENDIK AURRERA, KOTXEKO GILTZAK GALTZEA EZ DA ARAZOA IZANGO

DEITU ETA KONPONDUKO DUGU

943 17 69 76
607 33 11 77

KOTXEKO GILTZEN KOPIA



MOTA GUZTIETAKO GILTZAK,
DAKATEN MANDOA BARNE. BAITA MOTOR,
KAMIOI ETA ITSASONTZIEN GILTZAK ERE



GARAJEKO MANDOEN KOPIA

KARKASA ALDAKETA

KOTXEKO GILTZA ERABILTZEAGATIK
ZAHARKITUTA BADUZU, KARKASA
ALDAKETAREKIN BERRITU EGINGO DIZUGU



TOLESGARRI BIHURTU

KOTXEKO GILTZA HANDIEGIA DELA?
TOLESGARRI BIHURTU NAHI?
ORAIN ALDAKETA EGIN AHAL DIZUGU



ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es



Ferretería **ANBOTO** Burdindegia